

Hiritartasun globalerako hezkuntza

Oinak lurrean izanda amets eginez

Hiritartasun
globalerako
hezkuntza



Educación
para una
ciudadanía global




ALBOAN



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Hiritartasun globalerako hezkuntza

Oinak lurrian izanda amets eginez

Argitatzaila:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda kalea 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267
alboangi@alboan.org

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Faxe: 945 202 676
alboanar@alboan.org

www.alboan.org

Itzulpena: Elhuyar

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege gordailua: Bi-1286-2012

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere
helburu komertzialik ez badu eta iturburua apaitzen baldin bada.

Aurkibidea

1. Aurkezpena	4
2. Gobernuz kanpoko erakundeen ekarpena eta garapenerako hezkuntza gure testuinguruan	6
3. Hiritartasunerako hezkuntzarako esperientziak	9
4. Hiritartasun globalerako hezkuntzari buruzko ondorioak eta gomendioak	22



1 ● Aurkezpena

2011ko irailaren 19 eta 20an, “Hiritartasun globalerako hezkuntza. Oinak lurrean izanda amets eginez” jardunaldiak egin ziren Bilbon. ALBOANek antolatu zituen, erakunde hauen laguntzarekin: CEAR-Euskadi, Euskadiko Elkarbidea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Elkarhezitzen eta Hegoa. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza eta finantzaketa ere izan zuten.



Jardunaldi haiek taldeen topagune izan ziren, eta gure ingurune hurbilean hiritartasun globalerako hezteko aurrera eramaten ari diren praktikei onarpena emateko ere balio izan zuten. Eta beste bi helburu gehitu behar zaizkie horiei:

Jarduera-ildoei eta lehentasunei buruzko adostasunak identifikatzea, baita beste eragile batzuekin aurrerago sakondu behar diren gaiak ere.

Garapenerako hezkuntzaren eztabaiden eta praktiken berri ematen hirugarren erakundeei, blogaren eta argitalpen honen bidez.

Eskuetan duzun argitalpen honekin, hezkuntza formalean eta ez-formalean garatzen diren hezkuntza-esperientzien aniztasunaren berri eman nahi dugu. Gure testuinguruan hiritartasun globalerako hezkuntzan lan egiten duten taldeen arteko truketik sortzen diren eztabaida eta proposamenak ere aurkeztu nahi ditugu.

Gure testuinguruan, errealitatearen eta egiten diren praktiken ikuspegi zorrotza eman nahi da dokumentu honetan, hortik abiatuta, bidea egiten jarraitu ahal izateko, eta hainbat eragilek hiritartasun globalerako hezteko egiten duten lana finkatzeko¹.

¹ Gai horri buruzko informazio gehiago izateko, bloga bisita dezakezu:
<http://ciudadaniaglobalhiritartasuna.wordpress.com>

2 ● **Gobernuz kanpoko erakundeen ekarpena eta garapenerako hezkuntza gure testuinguruan**

Jardunaldietan, garapenerako hezkuntzari buruz egindako azken diagnostikoa aurkeztu zen², baina, horrez gainera, gobernuz kanpoko erakundeek hiritasun globalean hezteko egindako apustuaren ekarpenak balioztatu ziren.

² Euskadiko Elkarbidearen “Erronkak ehunduz” izeneko diagnostikoa da, eta Elkarbidearen webgunean, CD atxikian nahiz aurrerago aipatutako blogean kontsulta daiteke.
<http://ciudadaniaglobalhiritartasuna.wordpress.com>



Alde horretatik, arlo horretan lan egiten duten erakundeek etsipenari aurre egin eta itxaropenari eusten lagundu diotela ikusi zen. Kasu batzuetan, aldaketarako bide, gizarte-alderdiei buruzko eztabaida sustatzeko bide, edo ordezkio bideak edo “bitxikeria positiboak” sortzen eta batera eratzen laguntzeko bide bihurtu dira. Bestelako metodologiaren, jakintza kolektiboaren onarpenaren eta oinarriko komunitatearekiko loturaren apustuak bidezkoa ez den sistemarekin gatazkak izatera eraman ditu batzuetan. Gatazka horrek zalantzak sortu ditu, eta pasioa eta indarra eragin; aldi berean, sareak sortu ditu beste batzuekin, baita, kasu batzuetan, banaketa eta aldea ere. Dena den, norbera eta sistema zalantzan jartzeko elementuak eskura jartzea izan da gizarte-erakundeek egin duten eta egiten duten ekarpen bat. hiritartasun politikoa indartu duen jakintza oinarritua gehitu behar zaio horri. Finean, sistema bidegabeari alternatibak bilatzeko lana onartzen da, batzuetan interesatuta egon litekeen jende guztia mugiarazteko behar bezain sortzaile eta malgua ez izan arren.

Alde horretatik, oraindik ere arlo batzuetan presentzia handiagoa izateko eta itun berriak sortzeko beharra zer espazio eta eremutan dagoen identifikatu da: hasi auzotarraren eta herritarren mugimenduetatik, eta erakunde politikoetarako, komunikabideak, hezkuntza-zentroak, ikasleen gurasoen elkarteak eta abar barne. Eta horri jarraikiz, eragin politiko handiagoko lana egiteko eta globaltasunarekin erlazionatutako tokian-tokiko salaketak egiteko eskatzen zuten jardunaldia bertaratu zirenek. Lankidetzapolitikatik haragoko salaketa eskatzen zuten; hau da, askotan lankidetzarako politikarekin koherenteak ez diren gainerako politikak ere salatzeak.

Alde horretatik, nabarmentzen zen egun hiritartasun globalerako hezkuntza eta praxi hori sustatu nahi duten gizarte-erakundeek eta erakunde publikoek erronka hauek dituztela: tokikoa eta globala lotzea; parte hartzea, lankidetzamekanismoak eta -espazioak izan behar dituen, eta, beste une batzuetan, jende guztiarentzako giza eskubideen aldeko salaketa- eta aldarrikapen-jarrerak; herritarrari mezua emateko komunikazioa hobetzea. Hezkuntza formalari eta ez-formalari dagokienez, erronka hauek aipatzen dira: hezkuntzaren komunitate-zentzua berreskuratzea; hezitzaileen lan eta irudiari balioa ematea berriro gizartean, eta hiritartasun globalerako hezkuntza txertatzea hezkuntza-zentro eta -erakundearen curriculumean eta praktikan, eta, horrenbestez, gizarte-erakundearen eta instituzio publikoen dinamikan.

Testuinguru horretan, jende gehiagorengana iristeko lan egiten jarraitzeko eskatzen zaie gizarte-erakundeei. Eta, horretarako, proposamen, ekintza eta dinamika sortzaile, aktibo eta kritikoak behar dira. Independentzia ekonomiko handiagoa lortu behar da, egungo egoeran seriotasun eta gaitasun handiagoa izateko salaketek, eta kontzientzia kritiko handiagoa sortzeko. Funtsezkoa da politikarien artean egotea, elkarri eraginez, eta aldaketarako kalitatezko proposamen politikoak izatea. Horien artean, etorkinen elkarteekin batera lan egitea aipatzen da nabarmen, eta immigrazioa eta aniztasuna

hezkuntza-zentroetan, elkarteetan eta gizartean balioztat jotzeko beharrezkoa den pentsamolde aldaketa eragitea.

Erronka horiei guztiei aurre egiteko, egun osagai horietako batzuk dituzten esperientziak ezagutu behar dira, haietatik eta haiekin ikasteko, gero aldaketak proposatzeko gizarte-erakundeen nahiz instituzio publikoen politiketan eta praktiketan. Jarraian, jardunaldietan aurkeztu ziren esperientzia batzuk aurkeztuko ditugu, gure ingurune hurbilenean egiten diren jardueren aniztasunaren adierazgarri direnak. Ondoren, berriz, jardunaldietan aipatu ziren lanerako ildo lehenetsiak, baita horiek gauzatzeko proposamen eta gomendio zehatzak ere.

3 ● Hiritartasunerako hezkuntzarako esperientziak

Ez daude diren guztiak; badakigu esperientzia interesgarri gehiago egiten ari direla hezkuntza-zentroetan eta hezkuntza ez-formaleko espazioetan. Esperientzien lagin bat aurkeztuko dugu jarraian, eta, ikus daitekeen moduan, hainbat arlotan, hainbat hezkuntza-etapatan eta askotariko eragileen bidez aurrera eramaten dira.

Zaila da hain esperientzia aberatsak honen leku gutxian laburbiltzea; hori horrela, esperientzia haiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, erreferentzia moduan aurkezten ditugun CDra edo webguneetara jo ahal izango da.



Amanda: Gasteizko Alde Zaharreen hezkuntza- proiektu kolektibo baten aldeko taldeen plataforma

Amandaren helburua Gasteizen kulturen arteko bizikidetzari buruzko proiektuen proiektua izatea da, ideien, ikuspegien eta esperientzien batura. Eta proiektu horretan bat egiten dugu hiriko Alde Zaharreen hainbat arlotako proiektuak ditugun jendeak; proiektu guztiek eremu horretara babesik gabe eta desberdintasun-egoeran iritsi diren jendea hartzeko eta gizarteratzeko helburua dute.

Talde moduan, oinarritzko hiru premisa adostu hartu ditu abiapuntu, hirurak ere nahiko utopikoak: aniztasuna aukera bat dela desberdintasuna errespetatzen duen gizarterantz egiteko, eskubide-berdintasuna modu eraginkorrean aplikatuko duen gizarterantz; bigarren premisa, berriz, denbora eta espazio berean bizi diren kultura-taldeen gizarteratzea guztiontzat positiboagoak izango diren elementu partekatuetatik sortutako kultura eta hiritartasun berri bihurtu ahal izatea da, eta, azkena, planetako eta auzoko hiritartasunaren baldintza berri horrek partekatzen ditugun egoera, arazo, zailtasun, abantaila eta aukeratan jendeak eta taldeek parte hartzea dakarrela.

Amandak filosofia hori eraman nahi du Gasteizko Alde Zaharreko proiektu soziokulturalera. Eguneroko gai konkretuetatik, auzoko errealitatetik, bertan lan egiten duten askotariko kolektiboen praktika eta ezagutzatik, Alde Zaharreko gizarteratze-prozesuei bide eman nahi zaie, talde horiek gainerako gizartetik ez bereizteko, eta ghettorik ez sortzeko.

Helburu horretan laguntzeko, talde bakoitzaren kulturartekotasunaren teoriari eta praktikari buruz eztabaidatzeko eta ideia horiek alderatzeko biltzen da plataforma. Aldian behingo bilera horietan, gertutik ezagutu ditzakegu besteren proiektuak, eta nolabaiteko koordinazioari, lankidetzari eta sinergieiei bide eman; baina, batez ere, hiri-espazio kolektibo bat eraikitzeko beharrezkoak diren irmotasuna, gogo handia eta kemena eragiteko baliagarriak dira.

Plataformak 2005ean ekin zion bideari, bazkide zuen elkarte bakoitzaren praktikak eta balioak aztertuz, baita ekintzak planteatzen zituzten hezkuntza-parametroak ere. Pixkanaka-pixkanaka, aldatu egin dira erakundeak, baina Amandak Alde Zaharreko esku hartze sozialeko eta hezkuntzako esku hartzeko jarduerak ikuspegi orokor eta

partekatutik, baterako logika batetik berriro pentsatzeko asmoari tinko darraio. Egun, talde hauek dira bileretan aktibo jarduten dutenak: Ramon Bajo LHI eta bertako Guraso Elkartea, Landatxoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Saregune, Gasteiz Trantsizioan, Hegoa-EHUko Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua eta Irakasle Eskola.

Informazio gehiago:
www.amanda.elkartek.net



Bilgune Sarea Gernika Gogoratuz (bakearen aldeko ikerketa-elkartea), Gernikatik Mundura (garapenerako GKEa) eta Ideasurrek osatzen dute (kulturarteko elkartea). Bilgune Sarearen jarduera-esparruak tokiko garapena, kulturartekotasuna eta bakearen eraikuntza dira.

Lankidetzaren honen baitan, lankidetzaren proiektuak egin eta larrialdietarako laguntzak eman dira Rifén (Maroko), Caquetán (Kolonbia) eta Comanestín (Errumania). Topaketak sustatu dira, besteak beste, “Kulturartekotasuni buruzko mintegi-lantegia”, “Alkargarapena: etorkinak eragile aktiboak Gernikan eta munduan”; hitzaldiak eman eta mahai-inguruak egin dira Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko Jardunaldietan. Hika Ateneoko Baterako Garapenerako Foroan parte hartu du, baterako garapenari buruzko lan-jardunaldietan, “Kulturen arteko kanelazoak”, eta kulturarteko festetan: Munduko Arrozak, Astra, Guztion kulturarteko VI. eta VII. topaketak. *Jóvenes amazónicos le escriben a la paz* liburua argitaratu du, eta *Bizi naizen lekutik. Gernikatik. Desde el lugar en el que vivo, Din locul unde traiesc* ikus-entzunezko materiala koordinatu.

3 Izkiña hiru lekutako gazteen arteko elkarriketarako eta kultura-trukerako esperientzia komunitario bat da. Hiru leku horiek Gernika (Euskal Herria), Florencia (Kolonbia) eta Al-Hoceima (Maroko) dira. Ekimen hau Bilgune Sareak sustatzen du, AZRAF Euskadiren lankidetzarekin.

Ekimenaren helburuak hauek dira:

Gazteen baterako arazo, behar eta interesei buruz gogoeta egiteko eta topagune bat izateko **eremu bat ematea**.

Gazteen parte hartze eta integrazio soziokulturala **sustatzea**.

Ekintza komunitarioa gizon eta emakume gazteen proiektuorako espazio moduan **sustatzea**, gizarteko subjektu moduan osatzeko eta beren bizi-proiektuak garatzeko.

Informazio gehiago:

Gernika Gogoratuz www.gernikagogoratuz.org

Gernikatik Mundura <http://gernikatikmundura.wordpress.com>

Ideasur www.ideasur.org

Mugi zaitez berdintasunaren alde Bidezkoa da!

Duela lau urte, *Mugi zaitez berdintasunaren alde. Bidezkoa da!* kanpaina konpromiso eta ilusio handiz abian jarri zuten hiru erakundeek (Ayuda en Acción, Entreculturas eta InteRed) asmo handiko helburu bat zehaztuz ekin zioten abentura honi: hiritartasun ez-sexista sustatzea, gobernuei generoari eta garapenari dagokienez sinatutako konpromisoak bete ditzaten eskatzeko eta haiei eragiteko gai izango dena (nagusiki, Beijing-eko Ekintza Plataforma eta Milurtekoko Garapen Helburuak).

Helburu hori lotzeko, bi lan-ildori erreparatu zien kanpainak, funtsezkoak eta osagarriak iruditu baitzitzaizkigun gizon-emakumeen arteko berdintasun erreala lortzeko: **parte hartze politikoa eta zaintzaren ekonomia**.

Kanpainak (AECIDen, Kataluniako Garapenerako Agentziaren, Andaluziako Garapenerako Agentziaren eta Galiziako Juntaren finantzaketa jaso du), lurralde bakoitzean, pres-takuntza- eta mobilizazio-ekintzak eta komunikabideak sentsibilizatzeko ekintzak egin ditu, eta Iparreko eta Hegoko landa-eremuetako emakumeen erakundeekin lan egin du.

13

2010ean, jarduerak itxi eta kanpaina amaitu zen. Bidea luzea izan da: arrakastak izan dira, baita, batzuetan, frustrazioak ere, baina merezi izan dute lanak eta ahaleginak. Munduko hainbat herrialdetako 13.900 lagunek baino gehiagok babestu du *Mugi zaitez berdintasunaren alde. Bidezkoa da!* kanpaina; izan ere, beren aldarrikapenek mundu osoko gizon-emakumeen bizitza definitzen duten politika publikoetan leku garrantzitsua merezi dutela uste dute.

Uste osoa dugu bere hitzekin edo ekintzekin, gizarteak, legeak eta politikak aldatzea sustatzen duen jende guztiaren eragin biderkagarrian. Egunero, dagokien funtzioari jarraikiz, berdintasunaren alde egiten duten milaka hezitzailearen eragin biderkagarrian. Hori izan daiteke, agian, kanpaina honen lorpen handienetako bat, eta, horrexegatik, orain aurrean dugun erronka handienetako bat. Kanpaina honetatik, eskerrak eman nahi dizkiogu gurekin batera “**mugitu**” den jende guztiari, guri babesa ematea justiziari babesa ematea dela ulertu duen guztiari.

2011ko ekainean, *Mugi zaitez berdintasunaren alde. Bidezkoa da!* plataforma abian jarri genuen. Plataforma honek jarraipena ematen dio kanpainari, eta generoari eta garapenari buruzko informazioaren, zabalpenaren eta gogoetaren plataforma da. Espazio honetan,

emakumeek nork bere gizartearen garapenean duten funtzioa ikusgai egiten lagundu nahi dugu, Hegoko herrialdetan bereziki, baita emakumeek gizarte eta mundu bidezkoago eta zu-zenago bat eraikitzeke dituzten eskubideak defendatzeko proiektuak, albisteak eta ekimenak zabaltu ere.

Informazio gehiago:

www.mueveteporlaigualdad.org/



Garapenerako hezkuntzarako proiektu hau **Arabako Medicus Mundik, Mugarik Gabek, Bakea eta Elkartasuna Fundazioak eta Setem Hego Haizeak** sustatu dute, eta helburua da kontsumo kontziente eta arduratsua, bidezko merkataritza eta elikadura-burujabetza sustatzea, globalizazio neoliberalak tokian-tokian eta herri pobretuetan dituen eragin ekonomiko, sozial eta ingurumen-eraginak txikitzeko praktika hurbil eta eguneroko moduan.

Erakunde sustatzaileak 2003an abian jarritako *Egin bira lurbirari* sentsibilizazio-programan hasi ginen elkarrekin lan egiten; programa hartan, 24 erakunde inguruk parte hartu zuen. Programa hura amaitzean, 2005ean, globalizazio neoliberalari eta haren irudikapen nabarmenena den kontsumoari buruzko gogoeta egiten jarraitzeko ideia sortu zen, baita sareko proiektu bat osatzeko beharra ere. Hala sortu zen Mugarik Gabek, Setem Hego Haizeak eta Bakea eta Elkartasuna Fundazioak osatutako partzuergo txikiagoa, eta Zentzuz Kontsumitu (ZK) proiektua abian jarri genuen. 2008an, proiektuaren bigarren fasean, Arabako Medicus Mundi batu zitzaion partzuergoari, eta, orain, lau GGKEk sustatzen dugu proiektua.

Proiektuaren azken faseari orain ekingo zaio, eta hiru urteko iraupena izango du. ZKren helburua da, sarean lan eginez eta gure aliatuen eta gurekin puntu batzuk partekatzen dituzten beste erakunde batzuekin, Gasteizko herritarrei helaraztea politiketan eta gizartean eragiten duten proposamenak, Kontsumo kontziente arduratsu eta eraldatzaileko ordezkio praktiken bidez:

Kontsumo kontziente eta arduratsua, kontsumoari buruzko gogoeta eta eztabaidak, ideia eta ikaskuntzak sareko parte-hartzaile guztiek partekatzen baitituzte, nork bere kokapenetik eta espaziotik.

Eta eraldatzailea, zeren eta gogoetak, eztabaidak, ideiak eta ikaskuntzak proposamen zehatz, jardunbide egoki, estrapolagarri... bihurtzen baitira, eta eraldatzeko indarra izateko, partekatu egin behar dira egiteko moduak; hortik sarean lan egitearen arrazoietakoa bat.

Mungia BHI zentro osoak parte hartzen du prozesu honetan, eta, horretarako, kanpoko eragile askoren lankidetzak izan du. Hasiera batean, behar eta arazo batzuk identifikatu zituen zentroak, eta ikas komunitate bat sortzearen alde egin zuen (<http://utopiadream.info/ca/>). Filosofia honetan oinarritzen da proposamen hau: “gure seme-alabentzat izan nahi dugun ikaskuntzak haur guztien esku egon behar du”. Hori dela eta, hezkuntza-eredu barneragarri, parte-hartzaile, elkarriketarako joeradun eta kulturarteko baten alde egiten da. Horrenbestez, sarean lan egiten dugu ikas komunitate diren beste zentro batzuekin.

Prozesu honetan, handia eta askotarikoa izan da lankidetzak. Ikasgelan aldaketak sortzeko prozesu honetan, bereziki kulturartekotasunari erreparatuta, irakasleak, familiak eta ikasleak giltzarriak izan dira kulturartekotasuna zentroan agerrarazteko. Giltzarriak izan dira, halaber, udalerriko beste erakunde eta GKE batzuek (Biltzen, SOS Arrazakeria, Asocolvas, Zubietxe, ALBOAN...), laguntza eta orientazioa eman baitizkigute, eta tokiko kontuak eta kontu globalak lotzeko apustu egin duten beste errealtate eta zentro batzuekin harremanetan jartzeko aukera ere eman baitigute.

Informazio gehiago:

<http://kulturartekodunboa.blogspot.com/>

HEMEN aldizkaria, partekatzeak
batu egiten gaituelako

Aretxabaleta eta Arrasateko emakume etorkinek bizi izandako bazterketa- eta ikusezintasun-sentimendutik sortu da aldizkaria. Aldizkariaren bidez, etorkinak ikusgarri egin nahi ditugu, gure herritarrei erakutsi hemen bizi garela, eta herri honen parte izan nahi dugula, bertan lan egin ez ezik, bertako kulturari eta gizartean parte hartu nahi dugula. Pentsamendu partekatu horretatik abiatuz erakutsi ditugu gure nortasuna, aldeak, intolerantziak...

Informazio gehiago: *Harreman denda* webguneko *Buletinak* atalean aurki ditzakezue aldizkariak.
www.harremandenda.org/eusk/Boletinak/Boletinak.htm



Esperientzia hau Deustuko Unibertsitatearen Balioei buruzko giza prestakuntza moduluko bi irakasgaik osatzen dute. Irakasgai horien graduko titulazioetako ikasle guztientzat dira, eta ikasleei pertsona, profesional eta herritar moduan osoko prestakuntza bermatzera bideratzen dira. *Gizartean parte hartzea eta balioak* eta *Garapen globala eta migrazioak* irakasgaiak jarrerak eta balioak garatzera bideratzen dira: gizarte errealitatera irekitzea haren konplexutasun osoan; bidegabekeria globalarekiko eta gizarte-bazterketarekiko sentsibilitatea lantzea, eta errealitate horretan biktimak direnen egoera lantzea.

Bi irakasgaien oinarria prestakuntza-zerbitzu pedagogia bat da, eta elementu nagusia, ikasleen parte hartzea zerbitzu solidario batean, gizarte- eta komunitate-erakundeetan. Jarduera horrekin batera, prestakuntza-saioak eta parte-hartzaileen esperientziak trukatzeko saioak egiten dira unibertsitatean, gogoeta pertsonala aberasteko, eta helburu diren gaitasunak eskuratzen laguntzeko. Ikasle bakoitzak bere esperientziari, landutako edukiei eta egindako gogoetari buruzko azken laburpen edo memoria bat egin behar du.

Informazio gehiago:

Izaera eta Misioko Errektoreordetza
vim@deusto.es



Elkartasun- eskolak Nafarroako irakasleentzako prestakuntza-proposamen bat da, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak Nafarroako hezkuntza-zentro guztiei ematen dien irakasleentzako prestakuntza-planaren baitakoa. Proposamen horren buruak Nafarroako GGKE Koordinakundea, eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saila eta Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Saila dira.

Programaren azken helburua zentroetan garapenerako hezkuntza lantzea da. Ez da prestakuntza-programa teoriko bat soilik, bi helburu baititu:

-
- Irakasleak garapenerako hezkuntzan prestatzea.
 - Garapenerako hezkuntza ematea zentroetan. Azken horretarako, GGKEk eta NGGKEk irakasleei laguntzen eta aholkatzen diete zentroan garapenerako hezkuntzarako proposamenak eta programazioak abian jartzean.
-

Programa horren beste helburu batzuk hauek dira:

-
- Garapenerako hezkuntza GGKEen artean koordinatuta lantzea.
 - Elkartasun-eskolen sare bat sortzea.
-

Funtzionamendu-eredu hau Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Lankidetzaren II. Plan Gidarian (2011-2014) Garapenerako Hezkuntzaren Nafarroako Estrategian jasotako proposamen batetik sortzen da; honela jasotzen da:

-
- II.1.2 helburu estrategikoa: garapenerako hezkuntzaren kalitateko prozesuak sustatzea, elkartasunaren kulturarekin koherenteak diren balioak, jarrerak eta gaitasunak bideratzeko.
-

-
- A.II.1.2.1: hezkuntza-sektorearen eta lankidetzaren sektorearen arteko koherentzia sendotzea, Elkartasun Eskolen sarearen garapena lehenetsiz, Hezkuntza Sailaren, ikastetxeen, Gizarte Gaiak, Familia, Gazteria eta Kirolak Sailaren, GGKEen eta haien Koordinakundearen inplikazioarekin.
-

Irakasleentzako prestakuntzak atal hauek ditu:

-
- Proposamenak aplikatzeko erantzukizuna duten GGKEk eta koordinakundearen hezkuntza-aholkularitzak prestakuntza ematea irakasleei.
-
- Garapenerako hezkuntzari buruzko aholkularitza ematea irakasleari, eta ikasturtean zehar programak ezartzen laguntzea; GGKEen eta NGGKEkren esku.
-

Munduak elkarlotuz Intermon-Oxfamen hezkuntza-proposamen telematiko bat da, eta kultura-, ekonomia- eta gizarte-errealitate desberdinak dituzten mundu osoko zentroek hartzen dute parte; 6-17 urteko ikasleek ikasgelako jarduerak eta sareko lana egiten dituzte. Helburua da lankidetzalanei, lan parte-hartzaileei eta demokratikoei ekitea teknologia berrien bidez eta jarduera batzuk sustatuz, hiritartasun globalerako hezkuntzako edukiak eta metodologiak irakasleen hezkuntza-praktikan eta ikasleen ikaskuntzan txertatzeko; hala, irakasleek aldaketarako eragile aktibo moduan duten rola sendotzen da.

Informazio gehiago:
www.conectandomundos.org/es/



4 ● Hiritartasun globalerako hezkuntzari buruzko ondorioak eta gomendioak

Ondorioak eta proposamenak jardunaldian Euskadiko Elkarbideak egin zuen diagnostikoaren aurkezpenean oinarrituz egituratu ditugu, eta beste atal bat gehitu dugu, zeharkako ardatzei buruzkoa.



Hiritartasun globalerako hezkuntzaren **politika edo apustu instituzional** bat izatea faktore giltzarri eta garrantzitsu bat da hezkuntza-prozesuetan parte hartzen duten instituzio guztientzat: bai hezkuntza-zentroentzat eta gizarte-erakundeentzat, bai instituzio publikoentzat. Beraz, halako praktikak sustatzeko elementu bihurtzen da baliabideak eta apustu argi, garden eta berariazkoa izatea.

Ohiz garapenerako hezkuntzari lotutako erakunde eta instituzioek bere egin behar dute apustu instituzional hori; gaur egun, ordea, praktikatik ikusten da esperientzia horiek indartzeko eragin biderkagarria dutela **hezkuntzaren, migrazioen, kulturaren, bakearen eta giza eskubideen, ingurumenaren, gazteriaren...** arloekin lotutako erakunde eta instituzioekin **koordinazio** handiagoa duten esperientziek. Prestakuntza-esperientziak, esperientzia praktikakoak edo ebaluazio-esperientziak izan daitezke. Sektoreko edo antzeko sektoreetako erakundeen arteko osagarritasunak eta lankidetzak apustu horien osotasunean eta tokiko errealitatearen eta errealitate globalaren elkarren mendeko ikuspegiari sakondu besterik ez du egiten.

Politika instituzional esplizitu horri lotuta dago **lortu nahi dugun ametsa zehaztearen garrantzia**. Zer hezkuntzaren eta zer hiritartasunen alde egiten dugun argiago definitzen den heinean, gaitasun handiagoa izango dugu espazioak zehazteko eta lankidetzan aritzeko gure lanaren osagarri izan daitezkeen beste erakunde batzuekin.

Alde horretatik, espazio eta finantzaketa espezifikoak behar dira, instituzioak nahiz gobernu kanpoko erakundeak finkatzeko. Eta, hain zuzen, **indartze instituzionalerako** aukera ematen duten baliabideak, espazioak eta uneak sortzeko eskaera agertu da jardunaldi hauetan. Indartze horrek helburu ditugun ametsi laguntzeko, haiei buruz gogoeta egiteko, alderatzeko eta eztabaidatzeko espazioak eta uneak sortzea eskatzen du.

Hezkuntza eta hiritartasun global espezifiko baten aldeko apustua gehiago argitu eta zehaztuz gero, argiago eta zehatzago eman ahal izango dugu gure apustuaren berri. Horrenbestez, bai administrazioek bai gizarte-erakundeek balioetsi egin behar dugu **komunikazioak, sentsibilizazioak eta hezkuntzak** esku hartze espezifiko eta zehatzetatik harago duten garrantzia, helburu orokor batean kokatuta.

Finantzaketa elementu giltzarria da halako hezkuntza-prozesuak garatzeko. Horrenbestez, finantzaketa egonkorra behar da, epe ertain eta luzeko prozesuen alde malgutasunez egiteko, eta testuinguruko elementuei eta lankide ditugun taldeen beharrei erantzuteko.

Horrenbestez, finantzaketa propioa handitu behar dute gizarte-erakundeek, epe ertaineko prozesuen alde egiteko, eta salaketa-ekintzak independentziaz egiteko. Bestalde, instituzio publikoei dagokie hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren alde egiten jarraitzea, eta finantzaketa malguko proposamenak egitea, lauzpabost urteko epeak aurreikusiko dituztenak. Gasteizko Udalaren urte anitzeko proiektuak aipatu ziren jardunaldietan; aurretiaz diagnostikoa egiteko aukera ematen dute, proposamenak kolektibo hartzaileen beharretara egokitzeko.

Gomendioak

Instituzio publikoek eta gizarte-erakundeek **erreferentzia-esparru bat izatea, garapenerako hezkuntzarako edo hiritartasun globalerako apustua esplizitatu eta zehazten duena**, baita filosofia, lan-ildoak eta kolektibo edo eremu hartzaile espezifikoak.

Gizarte-erakundeek nahiz instituzio publikoek **beste arlo batzuetako erakundeekin adostasuna eta lana egiteko aukera ematea eta bide hori erraztea, esaterako, hezkuntzari, gazteriari, kulturari, migrazioei, ingurumenari, generoari...** dagokienez, osagarriak izango diren hezkuntza-prozesuak aurrera eraman izateko, eremu publiko eta espezifikoetan sinergiak sortuz eta erakunde bakoitzak eragile biderkagarri moduan jokatzuz.

Horri dagokionez, instituzio publikoen lankidetzako, hezkuntzako, immigrazioko, gazteriako eta giza eskubideetako sailekin edo arloekin izan beharreko koordinazioak sinergia posibleak identifikatu behar ditu, eta **koherentzia eman politika publikoei**.

Beharrezkoa eta premiazkoa da **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan aritzea**, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, erreferentzia moduan hartuz, adibidez, Nafarroako Hezkuntza Sailaren, Lankidetzako Sailaren eta GKEen Koordinakundearen arteko lankidetzako proposamena. Horiek horrela, proposatzen dugu Hezkuntza Sailak zentroak komunitateari zabaltzearen alde egitea, badauden baliabideekin sinergiak sortzeko. Ezagutzen ditugun esperientziak dira, eta apustu horri oso balorazio positiboa ematen diote. Eta instituzio publikoek funtzio giltzarria izan dezakete instituzio publikoen artean eta gizarte-erakundeekin elkarriketa eta itunak sustatzeko eta bideratzeko.

Beharrezkoa eta presazkoa da itunak eta sinergiak sortzea, eta hezkuntza-proiektu eta -prozesuetan zehar-lerroak txertatzeko prozesua indartzeko ezagutzak eta ildoak eman ditzaketen lan-ildoak sendotzea: gazteria, kultura, ingurumena, migrazioa, generoa...

Baliabide, une eta espazio espezifikoak behar dira hiritartasun globalerako hezkuntza-prozesuan txertatutako erakunde bakoitza **instituzionalki indartzeko**, praktika eta gogoe-ta partekatzeo eta haietatik ikasteko baterako espazio moduan.

Baliabideak eta ahaleginak bideratu behar dira herritarrei hiritartasun lokal eta globalerako hezkuntzaren garrantziaren eta balioaren berri emateko, eta haien alde sentibilizatzeko eta hezteko, helburu dugun berdintasun eta duintasunezko etorkizunaren egungo erronkei aurre egiteko eta etorkizunekoak lantzeko.

Hiritartasun globalerako hezkuntza-prozesuak finantzatzen jarraitu behar da. Giltzarria da gizarte-erakundeek eta instituzioek halako hezkuntza-prozesuen alde egiten jarraitzea. Kri-si-egoera honek inoiz baino gehiago eskatzen du baterako arduraren, berdintasunaren eta justiziaren balioetan hezte. Finantzaketa horrek alderdi hauek jaso behar ditu: instituzioak indartzeko prozesuak; gizarte-entitateen urte anitzeko plan zein programak, eta alderdi espezifikoak; esaterako, diagnostikoak eta ebaluazioak edo epe luzeko prozesuen sistemati-zazioak. Horrez gainera, finantzaketa-ildo tradizionalak ere behar dira.

Hiritartasun globalarekin lotutako hezkuntza-prozesuen elementu giltzarria gizartearen parte hartzea da. Alde horretatik, parte hartzen ikasi behar da, eta **parte hartzea garrantzitsua izateko bide eta baliabideak** izan behar dira; parte hartzea erakunde publikoetan nahiz gizarte-erakundeen esparruan gauzatu behar da. Horrenbestez, parte hartzeko espazioak zabaltzea, indartzea, sustatzea eta boterea ematea komeni da, eta parte hartzearen fruituen berri ematea.

4.2.

Hiritartasun globalerako hezkuntzaren METODOLOGIA ETA BERRIKUNTZARI buruzko ondorioak eta gomendioak

Metodologiei dagokienez, jendearen hezkuntza-prozesuko metodologia aniztasuna baliatzearen garrantziaz hitz egiten da; hezkuntza-sistema formalak, batzuetan, alboratu egin du metodologia hori. Baina hezkuntza-sistemak ez ezik, gizarteak berak ere alboratu du, oro har, metodologia aniztasuna, edukiari garrantzia handiagoa emanda. Jardunaldietan eta praktika aurkeztuetan, **metodologia erakargarri eta interesgarriak** berreskuratzeko beharraren garrantzia balioesten da, sorkuntza garatzea eskatzen dutenak eta horretara eramaten gaituztenak, baina baliabide askorik behar izan gabe. Metodologia horien artean, barre, jolas, antzerki, musika eta umorearen balioa pedagogia eraldatzaile gisa sustatzera gonbidatzen da.

Dena den, beti **egokitu behar zaizkio metodologiak publiko hartzaileari**. Eta, hori, batzuetan, zaila da, egokitzea eta berariazko materiala prestatzea eskatzen duelako

talde batzuentzat, eta horrek kostu garrantzitsuak izaten dituelako, baina eragin handiagoa ere bai.

Berrikuntzak, egun, alderdi hauek izan behar ditu kontuan gutxienez:

Une bakoitzean sortzen diren **estereotipoak haustea**. Estereotipo horiek ez dira iraunkorrak, eta, testuinguruaren arabera, batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak izaten dira. Erakunde eta hezitzaileek adi erreparatu behar diete testuinguruko elementuei, ahalik eta modu onenean erantzuteko.

Egunerokoa sistemaren transformazio orokorrarekin lotu behar da. **Transformazio pertsonala eta egituren transformazioa** eskatzen ditu. Baina aldatzeko aukerak eman behar zaizkie banakoei, eta gizarte-aldaketa eta aldaketa globaletara batzeko eta haiek babesteko gonbidapena egin behar zaie.

Teknologia berriak txertatu behar dira lan-tresnatzat, krisi- eta aldaketa-testuinguru hauetan gure mezuekin kolektibo gehiagorengana eta beste publiko batzuegana iristeko aukera ematen baitigute. Dena den, onartu behar da epe ertainera baliabide bat gehiago izango dela.

Esperientziak eta praktikak erakusten digun funtsezko alderdi bat da gauza berriak egi-ten ausartzea; alegia, **probatzea, huts egitea, porrotetatik ikastea**, eta ez galtzea forma, metodologia eta alternatiba berriak proban jartzeko adorea, arrakasta izatearen segurtasunik ez izan arren ere.

Eta pentsatzen, plangintzak egiten, ebaluatzen eta praktiketatik ikasten duten lantaldeak ere behar dira. Horrek, ezinbestean, hau guztia eskatzen du: **lan-egonkortasuna; denbora izatea** hezkuntza-prozesuak abian jartzeko; estrategien plangintza egitea; egindakotik ikastea, eta gure jarduerak eragindako aldaketak hautematea eta aztertzea.

Gizarte-erakundeetan, hezkuntza-zentroetan eta instituzio publikoetan **lantalde gaitu eta egonkorrak** izatea sustatu behar da, proposamenen plangintza egiteko, praktikan jartzeko, ikasteko, ebaluatzeko eta garatzeko gaitasuna eta behar besteko ibilbidea izateko.

Esperientzia pilotuak sustatuko dituzten finantzaketa-bideak eta proposamenak eta hezkuntza-prozesuak berritzeko metodologia berriak behar dira. Lor litezkeen emaitzei ez ezik, testuinguruari, lantzen den talde jakinari, metodologiari eta abarri ekar liezazkieketen berrikuntza- eta berritasun-osagaiei ere erreparatzen dieten esperientziak, hain juxtu.

Gogoeta batera egiteko espazioak sortu behar dira, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren esparruan egindako praktika eta proposamen zehatzetatik abiatuz, hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek proposamen zehatzak aztertzeko, haietatik ikasteko eta beren balorazioa emateko. Eragile guztiok elkarrekin ikasi behar dugu, gure praktikak hobetzeko. Hortik itunak edo sareak sor daitezke, eragile guztiok gure ezagutza partekatze eta besteengandik ikasteko.

Teknologia berriak erronka bat dira egun gizarte-erakundeetan dauden jendearentzat eta hezitzaileentzat. Hasteko, teknologia berrien pedagogia bat egin behar da bi kolektibo horiekin, eta helburu dugun hezkuntzaren alde lan egiteko aukera ematen duten hezkuntza-proposamenak garatu, baliabidetzat teknologia berriak harturik.

Ebaluazio eta diagnostikoek ikasteko eta metodologia egokienak aurreikusteko tresnak izan behar dute. Diagnostiko eta ebaluazio horietako asko prozesu moduan planteatu eta erabili behar dira, erakunde batek talde jakin batekin egiten dituen jarduera guztiak edo zenbait erakundek talde espezifiko batekin egiten dituztenak kontuan izanik lurralde jakin batean edo arlo zehatz batean. Ebaluazioek eta diagnostikoek proiektu zehatzaren eskema gairak beharko lukete hein handi batean, ez baitu behar bezain zabala, dimentsio askoko eta beharrezko eraginekoa den ikuspegia ematen.

Jardunaldietan ezagutu eta aztertu genituen praktika eraldatzailetatik, hiritartasun globalerako hezkuntza-prozesuak egitean kontuan izan behar diren alderdi batzuk atera genituen.

Praktikak edo esperientziek arrakasta izateko alderdi giltzarrietako bat da **testuinguruaren azterketa** kontuan izatea. Testuinguruaz aztertzea funtsezkoa da, aurkeztutako esperientzia gehienetan sustatu eta finkatu daitezkeen elementuak baliatzeko aukera eman baitu (taldeak, baldintzak, espazioak...). Aztertutako esperientzia gehienak tokikoak izan dira, egunerokotik abiatu eta tokikoa globalarekin lotzen dutenak.

Testuinguruaren azterketa horren bidez, proposamenak eta prozesuak **jendearen errealitatetik** abiatzen dira, edo kezka batzuei erantzuten diete. Kasu askotan, kezkari erantzutea baino, kezka horiek sorraztea da hezkuntza-proposamenen funtzioa; dena dela, jendearen interesetatik abiatu behar da.

Horrez gain, komeni da **ekintza-proposamen zehatzak** egitea prozesu edo praktika eraldatzaile hauetan, ekintzen hartzaileei protagonismoa emateko, eta aldaketa orokorrako bat ekarriko duten aldaketa txikiak eta eraldaketa pertsonalak lortzeko.

Egun, beharrezkoa ikusten da **kalean egotea**. Proposamenak ikusgarriak izatea jendearen egunerokotasunean. Eta horrek elementu garrantzitsua izan behar du egiten diren praktikean, eta sentsibilizazioa, prestakuntza eta ekintza lotu behar ditu prozesuaren baitan.

Horretarako, **komunikazioa** elementu giltzarri eta erreferentziazkoa da hezkuntza-esperientzietarako. Beraz, denbora eta balioa eman behar zaizkio komunikazioari, publiko hartzailea ezagutzera emateko, azaltzeko, parte hartzera eta jarduera gonbidatzeko... helburuarekin lotzeko. Komunikazio horrek eskura dauden metodologia, baliabide eta espazio guztiak baliatu behar ditu.

Aزتutako praktiken beste alderdi giltzarrietako bat izan da **erlazioak zehaztea tokikoarekin eta tokiko espazio horretako beste kolektibo eta talde batzuekin**. Horrek, batzuetan, **sareko lana** egitea eskatzen du; beste batzuetan, berriz, lankidetzaz zehatzagoak edo osagarriak aurrera eramatea. Ildo horretan nabarmentzen da GKEen eta gizarte-mugimenduen arteko harremana. Jardunaldietan erlazio horiek nola izan eztabaidatu zen, eta eztabaidan garbi ikusi zen nahasteak zeudela nor den nor jakiteko. Gai honi buruzko gogoeta ikuspegi

kritiko batetik egitea komeni da. Dena den, jardunaldian gogoeta hori gizarte-mugimen-
duen eta GKEen lotura eta osagarritasunari erreparatuz egin behar zela ikusi zen.

Bestalde, beharrezkoa da gure ekintzek duten eraginaren **garrantzi eta balorazio kuantitatiboari** (zenbaki handiak) **eta kualitatiboari** buruzko gogoeta ere egitea gizarte-erakundeek eta entitate publikoek; hau da, masiboak ez baina garrantzitsuak eta erreferenteak diren esperientzien eraginari buruzkoa. Bi proposamenak interesgarriak eta beharrezkoak dira. Garrantzitsuak dira sentsibilizazio-ekintza masiboak, jende eta talde asko elkar ditzaketenak; beharrezkoak dira, halaber, berrikuntzaren alde egiten duten esperientziak eta proposamenak, talde txikien alde egiten dutenak, eragin biderkatzaile oso garrantzitsua izan baitezakete; denbora eta sakontasuna ematen zaizkion esku-hartzeak beste talde batzuen erreferentziazko proposamen bihur baitaitezke gerora. Institutuzio publikoek eta GKEk garbi izan behar dute zer esperientziaren alde egiten den, eta nola babestu esperientzia-aniztasun hori. Eta horrek finantzaketa- eta ekintza-tresna ugari eskatzen ditu, ezin baitira ez irizpide berak ez balorazio berak erabili ekintza guztietarako.

Amaitzeko, eta dokumentu osoan ulertzen den moduan, estrategia eta taldea garbi izan ondoren, **epe ertaineko** hezkuntza-prozesuak babestu behar dira. Eta epe ertaineko prozesu horiek eraginkorrak izan daitezen, helburuek eta taldeek garbi egon behar dute, eta ekintza zehatzen **estrategia arin eta malgua** eta **egitura malgua** konbinatu.

Gomendioak

Abiapuntua da hezkuntza-praktika eta -proposamenak **4-8 urte inguruko iraupeneko hezkuntza-prozesuetan** garatu behar direla. Hezkuntza- eta gizarte-prozesuek beren denborak eta erritmoak dituzte, eta haietara egokitu behar gara.

Horri erreparatuta, **lauzpabost urteko iraupeneko hezkuntza-proiektuekin** lan egitea proposatzen dugu. Proiektuek beren plangintza izan behar dute, eta lanerako prozesua definitu. Estrategia eta ekintza malguko proiektuak, eta ez helburu eta lan-talde malgukoak. Beharrezkoa denean, estrategiak balioesteko, haiei buruzko gogoeta egiteko eta egokitze denborak dituzten proiektuak.

Alde horretatik, alderdi batzuk egin, babestu eta finantzatu behar dira; esaterako:

- Proiektu bat egiteko, **aurretiko diagnostikoak** egitea, testuinguru espezifikoak, talde jakin bat edo lan-eremu jakin bat aztertze.

- **Praktika berritzaile edo berriak** eragin biderkagarria duten taldeekin...
- Hezkuntza-proiektuen **bigarren faseak**, udalerri edo eremu espezifiko batean epe ertaineko prozesuak bideratzeko.
- **Proiektuen bigarren faseak izan diren kasuetan, eragin-ebaluazio** derrigorrezkoak. Eragin-ebaluazioa erakundearen estrategia orokorrarena, talde espezifikoarekin egindako lanarena edo eragile batzuek lurralde jakin batean egindako lanarena izan daiteke.

Hezkuntza- eta gizarte-praktika eraldatzaileek formatu malguak behar dituzte, dagoeneko adierazi dugun moduan, eta baliabide garrantzitsuak eman behar zaizkie dinamizatzaileei, bideratzaileei, buruei eta kudeatzaileei.

Instituzio publikoek eta gizarte-erakundeek batera lan egitea eskatzen duten praktika eraldatzaileak abian jartzea proposatzen da, edo, gutxienez, instituzioen babesa izatea. Baterako lan horri esker, praktikek eragin handiagoa izan dezakete biztanleriaren sektore, lan-eremu... jakinetan.

Argi ikus da jardunaldietan **salaketa- eta eragite-lan** gehiago egiteko eskaera erakundeen beraien aldetik. Salaketa- eta eragite-lan horiek kalean agerpena izatetik instituzio publiko eta/edo pribatuekin lan egiterainokoak dira.

Eragite politikoa giza eskubideen defentsa da. Eragite horren helburuak sistema aldatzea izan behar du; hau da, erakundeen barne-koherentzia berrikustea, baita instituzio publikoena ere.

Eremu honetan helburu den eragitea alderdi eta elementu hauei lotuta dago: gizarte-arloko baliabideen murrizketa; hezkuntza-politikak; zentro espezifikoaren egoera; hezkuntzaren kalitatea; migrazio-politikak... Baita lankidetzako politika publikoetan eragitea ere.

Baterako eragite-ekintza gehiago egin behar ditugu gizarte-erakundeek: salaketa; ikerketa; ekintza-proposamenak; mobilizazioak; segimenduak, eta komunikazioa.

Eragite publikorako eremu zehatzak identifikatu behar dira, eragite-estrategia horiek abian jartzeko **itunak sortzeko** gizarte- eta hezkuntza-eremuetako beste eragile batzuekin.

4.5.

Hiritartasun globalerako hezkuntzaren ZEHARKAKOTASUNARI BURUZKO ondorioak

Zehar-elementuek gure ekintzak hainbat ikuspegitatik berrikustera “behartzen” gaituzte-la ikusten dugu. Ekintza horiek ikuspegi horretatik berririo pentsatzen laguntzen digute, eta baliabideak eta denbora horren arabera baliatzen.

Ikusi da ez dagoela hezkuntza-prozesu eta -proiektu horietan zehar-lerroak txertatzeko jarraibideak emateko oinarrizko gutxieneko protokolorik.

Zehar-ikuspegien barruan, **giza eskubideen ikuspegia** egiteko eta harremanak izateko moduekin lotzen da. Duintasunetik abiatzen den harreman bat da. Dagoeneko kasu askotan ari gara hori egiten, baina berrikustea komeni da, jokabide-eredu patriarkal, etnozentrikorik edo baztertzailek ez izateko.

Jardunaldietako esperientzia eta praktiketan, gai hauen inguruko berariazko gogoetak agertu ziren:

Generoaren ikuspegia

Ikusten da **gizonezko gutxik** hartzen duela parte genero-gaietan, eta alderdi asko daudela lantzeke bai emakumeekin bai gizonekin.

Hezkuntza-prozesu horietan parte hartzen duten erakunde eta pertsona batzuek **badute generoaren gogoetari buruzko nolabaiteko esperientzia, baina zaila da errealtatean aldaketak haute-matea**. Aldaketa eta eraldaketa horiek edukiak ez ezik, metodologiak, dinamizatzailen sentiberatasunak eta horri bide ematen dioten erreferenteak izateak ahalbidetzen ditu. Horri erreparatuta, oraindik ere bidean gaudela uste dugu. Jardunaldietan, adibidez, metodologiaren bidezko parte hartzea bideratu da, baina, kasu askotan, gizonek hartu dituzte hitza eta erreferentziak.

Kulturartekotasuna

Jardunaldietako eztabaidetan argien azaldu den alderdietako bat da. Beraz, gai horrek **kezka** handiagoa sortzen duela ikusten da. Eta, ziur asko, gai gatazkatsu, ikusgarri eta zalantzan jarria bihurtzen ari delako du ikusgarritasun hori.

Erakundeok aniztasunetik eraikitzaera garamatzen erronka bat da. Erakundeen funtsari eragiten dio.

Eta zehar-lerro horretan, oraindik ere, ez dugu behar adinako diskurtsorik, eta gutxiagoa **tresnarik**.

Ingurumena

Ingurumenari dagokionez, sentsibiltate handiagoa dago, eta lan handiagoa egin da hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arloan. Hala ere, presentzia txikia izan dute jardunaldi hauetan. Dena den, ikusi dugu birziklapenak, adibidez, zalantzak eta eztabaidak sortzen dituela. Argiago ditugu kontsumoa murriztearen eta kontsumo arduratsuaren gaiak birziklapena, berrerabil-tzea eta halako gaiak baino.

Hezkuntza-prozesu hauek zehar-lerro bakoitzean izan beharko lituzketen **oinarrizko gu-txieneko protokoloak** prestatzea. Egiaztapen-zerrendak izan daitezke, kontuan izan beharreko jardueren edo alderdien argibideak emateko, eta horietakoren bat beharrezko-tzat jotzen ez denean, zergatiaren berri eman beharko da.

Alde horretatik, **prestatuntza eta laguntza-orientazioa behar dira**. Eta hainbat aukera daude horretarako: kanpoko jendearekin edo entitateekin lankidetzan aritzea; berdinen baterako lana, eta abar.

Beraz, ondoriozta dezakegu gure inguruan lan garrantzitsu eta interesgarria egiten dela hiritartasun globalerako hezkuntzari dagokionez, bai hezkuntza formalaren arloan, bai hezkuntza ez-formalaren arloan.

Testuinguru-elementuek ekintza horiek sustatzen dituzte batzuetan, baina zaildu beste batzuetan. Eragina izango duten proposamenaren giltzarriak borondate politiko handiagoa, baliabideak, taldeari egokitutako proposamenaren egitura, testuinguruko elementuen erabilera eta eragile askoren lankidetzak dira.

Testuingurura eta kolektiboen beharretara etengabe egokitzea eta askotariko metodologiak erabiltzea funtsezkoak dira proposamenek jendea erakartzeko, eta aldaketak eragiteko. Horretarako, prestakuntza eta ikaskuntza etengabea ere behar dira, bai ekimenak sustatzen dituztenentzat, bai haietan parte hartzen dutenentzat.

Testuinguruak erronka botatzen digu egunero, eta, hala ere, jende asko dago jende guztiarentzat ahalik eta mundu onena sortzen lagunduko duen hezkuntzaren alde egiteko prest, eta behar besteko sorkuntza, uste osoz eta indarrez.